

## **ERABAKIA, AKADEMIA ANTOLAKUNTZAKO ERREKTOREORDEARENA, ECI/2514/2007 AGINDUAK ETA 1002/2010 ERREGE DEKRETUAK ARAUTUTAKO UNIBERTSITATE TITULUEN ATZEKO ALDEKO EDUKIARI BURUZKOA**

Europako Unibertsitate Eremura egokitutako unibertsitate ikasketa ofizialen antolaketa berria honako hauek argitaratu zirenean hasi zen: 55/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, graduako unibertsitate ikasketei buruzkoa eta 56/2005 Errege Dekretuak urtarrilaren 21ekoa, graduondoko unibertsitate ikasketa ofizialei buruzkoa. Aipatutako azken dekretua baino ez zen garatu eta hari esker unibertsitateek master ikasketak eta graduondoko programa ofizialenak baimentzeko izapideak egin zituzten Autonomia Erkidegoarekin 2006/07, 2007/08 eta 2008/09 ikasturteetarako.

Autonomia Erkidegoak onartu egin zituen proposamenok 2006ko otsailaren 22ko aginduaren, 2007ko martxoaren 28ko aginduaren eta 2008ko martxoaren 4ko aginduaren bitartez eta BOEn argitaratu ziren Unibertsitateko Irakaskuntza Koordinatzeko Kontseiluko Idazkaritza Nagusiaren 2006ko ekainaren 22ko (06.07.03ko BOE), 2007ko maiatzaren 17ko (07.06.14ko BOE) eta 2008ko ekainaren 26ko (08.07.09ko BOE) erabakien bitartez.

Hiru ikasturte horietako masterrak eta graduondoko programa ofizialak 56/2005 Errege Dekretuan jasotakoaren arabera izapidetu ziren eta horiek gainditu dituzten ikasleei master eta doktoregoko unibertsitate titulu ofizialak emateari buruzko abuztuaren 13ko ECI/2514/2007 Aginduan zehaztutako eskaizunen arabera eman behar zaie unibertsitate titulua.

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua, unibertsitateko ikasketa ofizialak antolatzen dituen, argitaratu zenetik, graduak, masterrak eta graduondoko programa ofizialak, aipatutako errege dekretuan zehaztutako irizpideen arabera egiaztatu eta onartu ondoren, abuztuaren 5eko 2010/2002 Errege Dekretuan, unibertsitate titulu ofizialak emateari buruzkoan (10.08.06ko BOE), adierazitakoari lotu behar zaizkio unibertsitateko titulua emateari dagokionez.

Aurrekari hauek eragin dute, bukaera datoren arabera, master berdinerako titulu desberdinak eman behar izatea, batzuk ECI/2514/2007 Aginduaren eskakizunen arabekoak eta besteak 1002/2010 Errege Dekretuan xedatutako formatuaren arabekoak.

Bestalde, Hezkuntza Ministerioak Unibertsitate, Ikastegi eta Tituluen Erregistroan orain arte ikasketa planak izapidetzeko eta titulazioak kodifikatzeko erabili dituen kodeak generikoak dira eta ez dituzte graduetako eta masterretako proposamen egiaztatuetan agertzen diren “aipamenak” edo “espezialitateak” barne hartzen. Horrek eragotzi egiten du horiek tituluaren aurreko aldean agertzea baina atzeko aldean ager daitezke unibertsitatearekin hitzarmen bat baldin badago; izan ere, bai ECI/2514/2007 Aginduaren 11. artikulua, bai 1002/2010 Errege Dekretuaren 17. artikulua argi eta garbi zehazten baitituzte tituluen aurreko aldeko edukia eta kode ofizialak, baina ez atzeko aldeko gakoak, kodeak, zenbakiak, titulua eman den lekua

eta data eta tituluen ataleko arduradunaren sinadura, horiek unibertsitate bakoitzaren irizpideen mende geratzen baitira.

Hala bada, egiaztatutako titulazioen espedienteetan agertzen diren graduetak aipamenak eta masterretako espezialitateak sar daitezke tituluen atzeko aldean, ikasleak ikasi eta gainditutakoaren arabera. Horrela, informazioa gehitzen zaio tituluari, ikastegiek positibotzat jotzen dutena eta eskatzen dutena, haiek ikasketa planean hala zehaztu zutelako, eta ikasleak lan merkaturatzeko baliozkotzat jotzen dena.

Horrez gain, tituluen atzeko aldean sartzeko interesgarriak dira, desagertzeko prozesuan dauden ikasketa planen tituluetan jasotzen denaren antzera, ikasketa plana Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zeneko data eta titulazioa bukatzen deneko data, datu horietaz balia daitekeelako eta unibertsitateko titulu ofizialei beste berme bat gehiago ematen dietelako.

Ondorioz, Errektoreordetza honek ERABAKI DU, Akademia Antolakuntzako eta Doktoregoko Batzordearen 11.02.03ko saioko aldeko txostena ikusi ondoren, unibertsitate honetan ematen diren unibertsitate titulu ofizialen atzeko aldean honako informazio hau jasotzea:

1. 56/2005 Errege Dekretuak xedatutakoaren arabera onartutako masterreko titulu ofizialetan:
  - a. Ikasketa planeko espezialitateen artean, titularrak egin eta gainditu dituenak.
  - b. Ikasketa plana EHAAn argitaratu zeneko data.
  - c. Ikasketak bukatu direneko data.
2. 1393/2007 EDk araututako ikasketetan (graduak eta masterrak)
  - a. Ikasketa planeko aipamen eta espezialitateen artean, titularrak egin eta gainditu dituen aipamenak, graduen kasuan, eta espezialitateak, masterren kasuan.
  - b. Ikasketa plana BOEn argitaratu zeneko data.

Leioa, 2011ko otsailaren 4a.

Akademia Antolakuntzako errektoreordea

Carmen González Murua